

AEBetako argitaldarien Google auzitara eraman dute, liburutegi birtuala sortzeko asmoengatik

Duela aste batzuk Ameriketako Estatu Batuetako egileen elkarteak salatu zuen Google bilatzailea. Atzo AEBetako Argitaldarien Elkarteak salaketa jarri zuen, Googlek jabego intelektualaren legea bortxatu duela argudiatuta. Google Print egitasmoak eragin du erakundeon haserrea. Hainbat liburutegi handitako liburu guztiak eskaneatu eta Interneten jarri nahi ditu bilatzaileak, copyright legeen pean daudenak barne. Edonola ere, Googlek ez du liburu osoak jaisteko moduan jartzeko asmorik, bai, ordea, kontsultatzeko moduan.